ERAMAN!
JAI ALAI GARA

info@eramanjaialai.com

Don Tello 15. C.P. 48300.
Gernika. Bizkaia.

# MARKINA-XEMEIN GRAND SLAM
# Iazko arrakasta gainditzea helburu (Eusk)

- ***Ostiral honetan (20:00tan) hasiko da txapelketa: Erkiaga-Ibarluzea vs Barandika-Basque, Arbe-Lekerika vs Olharan-Zabala***

- ***Iazko edizioa mugarria izan zen, azken 25 urteetako arrakastatsuena. Aurten marka hori apurtu nahi da***

- ***Sarrerak gaurtik aurrera salgai www.eramanjaialai.com atarian***

- ***Zabala "titularraz" gain, beste lau markina-xemeindar izango dira Grand Slamean: Arbe, Goitia, Ibarluzea eta Atain***

Ostiral honetan hasi eta uztailaren 16an bukatuko da Markina-Xemeingo Grand Slama. Iazko edizioa ez zaigu pilotazaleoi ahaztu. Mugarria izan zen. 25 urtean holako zesta-txapelketa arrakastatsurik bizi gabe zegoen Pilotaren Unibertsitatea eta marka hori gainditzea da aurtengo helburua. Betiko zesta-zaleez gain, gazteak, familiak eta inguruetako herritarrak joan ziren iaz frontoira eta aurten ere giro ederra izatea espero dugu. Publiko zabala, Jai Alaiaren denbora berri hauetan.

Iazko olatuaren ondoren, zesta-punta hazte eta sendotze fasean aurkitzen da orain, etorkizunerako oinarri sendoak finkatzen. Kirol honen historian herri garrantzitsua izan da Markina-Xemein eta aro berri honetan ere hor izan nahi duela erakutsi nahi du.

Aurtengo Grand Slamak sei jardunaldi izango ditu. Lehenengo hirurak ligaxka fasekoak izango dira eta ostiral iluntzetan jokatuko dira. Ondoren finalerdiak jokatuko dira, igande eta larunbat arratsaldez. Azkenik, bi bikote onenak Grand Slameko final handian izango dira eta zuzenean emango du partidu hori ETB 1-ek. Aurten Karmen Eguna igandea tokatzen da.

**Herriko pilotarien partehartzea**

Jai Alai World Tour zirkuituko zortzi pilotari titularren artean herriko seme bat dago. Jon Zabala atzelaria. Egungo pilotari onenen artean dago "Bullet" eta zirkuituko txapelketa guztiak jokatuko ditu, Goikoetxea, Erkiaga, Lopez, Barandika, Lekerika, Basque eta Olharan-ekin batera. Gainontzeko postuak, egoitza edo antolatzaile bakoitzak aukeratzen ditu. Markina-Xemeingo Grand Slamarekin kasuan, elkarrekin antolatzen dute txapelketa ERAMAN! enpresak eta bertako zesta eskolak.

Aurtengo edizio honetan, Zabalaz gain, herriko beste lau semek ere izango dute txapela irabatzeko aukera. Jokin Arbek, Alex Goitiandiak, Ion Ibarluzeak eta Gorka Mugartegi "Atain"-ek. Lau hauetan Arbe da goi-mailan esperientzia gehien duena eta gainerako hirurek aurrerapausuak eman nahi dituzte gorunzko bidean. Euren joko-maila zein den erakusteko aukera izango dute, laurek ere, bikotekide bikainak izango dituztelako.

Goitiak Lopezekin jokatuko du, Atainek Goikoetxearekin, Ibarluzeak Erkiagarekin eta Arbek Lekerikarekin.

**Sarrerak**

Sarrerak online eskuratu ahal izango dira eta lehen hiru jardunaldikoak (ligaxkakoak) salgai daude dagoeneko. Eguerdiko 12:00tan ireki da takila www.eramanjaialai.com atarian. Bost mila biztanle inguruko herria izanik, pilotaleku ederra du Markina-Xemeinek, 1.000 eserleku eta 54 metro luzekoa.

# MULTZOAK

- **A MULTZOA**

  ERKIAGA-IBARLUZEA
  ALEX GOITIA-LOPEZ
  BARANDIKA-BASQUE

- **B MULTZOA**

  GOIKOETXEA-ATAIN
  ARBE-LEKERIKA
  OLHARAN-ZABALA

# EGUTEGIA

- **Ekainak 9, ostirala (20:00tan). LIGAXKA**

  ERKIAGA-IBARLUZEA vs BARANDIKA-BASQUE
  ARBE-LEKERIKA vs OLHARAN-ZABALA

- **Ekainak 16, ostirala (20:00tan). LIGAXKA**

  ALEX GOITIA-LOPEZ vs 1. Jardunladiko irabazlea (A multzoa)
  GOIKOETXEA-ATAIN vs 1. Jardunaldiko irabazlea (B multzoa)

- **Ekainak 23, ostirala (20:00tan). LIGAXKA**

  ALEX GOITIA-LOPEZ vs 1. Jardunladiko galtzailea (A multzoa)
  GOIKOETXEA-ATAIN vs 1. Jardunaldiko galtzailea (B multzoa)

- **Uztailak 2, igandea (18:00tan)**

  Lagunarteko partidua
  GS LEHEN FINALERDIA

- **Uztailak 8, larunbata (19:00tan)**

  Lagunarteko partidua
  GS BIGARREN FINALERDIA

- **Uztailak 16, igandea (18:00tan)**

  FINAL HANDIA (ETB 1-en zuzenean)


MARKINA-XEMEIN
JAI ALAI
GRAND SLAM
EKAINAREN 10TIK UZTAILAREN 16RA
JAI ALAI WORLD TOUR SERIES 2023
MARKINA-XEMEINGO PILOTA UNIBERTSITATEA
UNIVERSIDAD DE LA PELOTA DE MARKINA-XEMEIN

# GRAND SLAM MARKINA-XEMEIN

## Objetivo, superar el éxito del pasado año (Cast)

- ***La competición arranca este viernes (20:00h): Erkiaga-Ibarluzea vs Barandika-Basque, Arbe-Lekerika vs Olharan-Zabala***
- ***El éxito del año pasado marcó un antes y un después. Este año se quiere superar esa marca***
- ***Las entradas salen hoy a la venta en www.eramanjaialai.com***
- ***Además del "titular" Zabala, otros cuatro markinarras participarán en el Grand Slam: Arbe, Goitia, Ibarluzea y Atain***

El Grand Slam de Markina-Xemein arranca este viernes con un total de seis jornadas que finalizarán el 16 de julio, día del Carmen. La edición del pasado año marcó un antes y un después. La Universidad de la Pelota fue testigo del torneo más exitoso de los últimos 25 años y este año tenemos como objetivo superar esa marca. Además del "pelotazale" habitual, la Uni fue el lugar de encuentro para jóvenes, familias y vecinos de otras localidades. Un amplio y numeroso público en estos nuevos tiempos de Jai Alai.

Tras la ola del 2022, la cesta-punta llega este año a Markina-Xemein en una fase de crecimiento con el firme propósito de cimentar los pilares para su futuro. La localidad vizcaína ha sido muy importante en la historia de este deporte y también lo quiere ser en esta nueva etapa de la cesta-punta.

En esta edición, el Grand Slam cuenta con un total de seis jornadas. Las tres primeras de liguilla se jugarán los viernes. Las dos semifinales se jugarán en dos jornadas distintas (domingo y sábado) y la final el domingo, día del Carmen. ETB 1 retransmitirá este partido en directo a partir de las 18:00h

**Markinarras en competición**

Entre los ocho pelotaris titulares del Jai Alai World Tour se encuentra el markinarra Jon Zabala. Eso le da derecho a jugar todas las competiciones del circuito, al igual que a Goikoetxea, Erkiaga, Lopez, Barandika, Lekerika, Basque y Olharan. Cada organizador o sede decide los respectivos puestos de cada torneo y en esta ocasión, la empresa ERAMAN! y la escuela de cesta de Markina-Xemein han optado por los puntistas locales.

Estarán en este Grand Slam, además de Zabala, los markinarras Jokin Arbe, Alex Goitiandia, Ion Ibarluzea y Gorka Mugartegi "Atain". Arbe es el más experimentado de todos y los otros tres buscarán dar un paso adelante en su progresión. Tienen una buena oportunidad para ello, ya que están emparejados con compañeros de altísimo nivel: Goitia con López, Ibarluzea con Erkiaga, Atain con Goikoetxea y Arbe con Lekerika.

**Entradas**

Las entradas de las tres jornadas de liguilla ya se pueden adquirir online. La taquilla de www.eramanjaialai.com se ha abierto hoy a las 12:00h. Para ser un municipio de cinco mil habitantes, Markina-Xemein cuenta con un frontón de lujo, con 1.000 localidades y una cancha de 54m.

# GRUPOS

- **GRUPO A**

  ERKIAGA-IBARLUZEA
  ALEX GOITIA-LOPEZ
  BARANDIKA-BASQUE

- **GRUPO B**

  GOIKOETXEA-ATAIN
  ARBE-LEKERIKA
  OLHARAN-ZABALA

# CALENDARIO

- **9 de junio, viernes (20:00h). LIGUILLA**

  ERKIAGA-IBARLUZEA vs BARANDIKA-BASQUE
  ARBE-LEKERIKA vs OLHARAN-ZABALA

- **16 de junio, viernes (20:00h). LIGUILLA**

  ALEX GOITIA-LOPEZ vs ganadores 1ª jornada (Grupo A)
  GOIKOETXEA-ATAIN vs ganadores 1ª jornada (Grupo B)

- **23 de junio, viernes (20:00h). LIGUILLA**

  ALEX GOITIA-LOPEZ vs perdedores 1ª jornada (Grupo A)
  GOIKOETXEA-ATAIN vs perdedores 1ª jornada (Grupo B)

- **2 de julio, domingo (18:00h)**

  Partido amistoso
  1ª SEMIFINAL GS

- **8 de julio, sábado (19:00h)**

  Partido amistoso
  2ª SEMIFINAL GS

- **16 de julio, domingo (18:00h)**

  GRAN FINAL (en directo por ETB 1)

**Contactos:**

Jon Zabala: 660 468 619
Aritz Erkiaga: 683 130 021
Iñaki Osa Goikoetxea: 618 182 724
Unai Lekerika: 688 761 903
Xabi Barandika: 628 038 534
Imanol López: 643 227 792
Jokin Arbe: 637.216.875
Alex Goitia: 669.522.310
Gorka Mugartegi “Atain”: 688.641.116
Ion Ibarluzea: 639.667.828